



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 3ko 26/1998ko FORU DEKRETUA, 1998an lurzorua eskuratzeko Udalentzako dirulaguntzak araupetzen dituena.

ZIOEN ADIERAZPENA

1998rako Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan, abendu 19ko 14/1997ko Foru Arauak onetsitakoetan, lurralde historikoko Udalei nolabaiteko babes ofiziala duten etxebizitzak eraikitzeko kostu bidezko eskuraketan diruz laguntzeko helburua duen epigrafe bat eransten da; ondorioz, beharrezkoa da laguntza mota berezi horren emakidaren oinarri araupetzaileak ezartzea.

Berori dela bide, Hirigintza Saileko Diputatuak eskatuta, aurretiaz Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATU DUT

1. Artikulua- Xedea.

Dekretu honen xedea ondorengoa da: Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalei emateko diren laguntzak ezarri eta araupetzea, zertarako eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzorua eskuratzeko kostu bidezko eskuraketarako.

2. Artikulua- Laguntzak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak dirulaguntza ez- -itzulkorrek dira.

3. Artikulua- Onuradunak.

Bizkakiko Lurralde Historikoko Udal guztiek eskura ditzakete deialdi honetan ezartzen diren dirulaguntzak eta, horretarako, zuzenbide publiko edo pribatuko Toki Herri Erakundeen bidez eta Toki Herri Sozietateen bidez, zeintzuetan kapital gehiena Udalarena den, jardun dezakete.

4. Artikulua- Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

1.- Hurrengo baldintza hauek betetzen dutuzten lurzoru eskuraketak lagundu ahal izango dira diruz:

- a) Lurzorua hirilur, urbanizakor edo urbanizatzeko gai izatea.
- b) Lurzoru horrek hirigintza arloan babes ofizialeko araubideren bat duten etxebizitzak eraikitzeko kalifikazioa izatea.
- c) Eskuraketak kostu bidez izatea.
- d) Egindako jarduketak edo formalki konprometatutak izatea.



e) Eskuratzaila udala izatea, zuzenean zein aurreko artikuluan aipatu erakunde baten bidez, hau da, sozietatearen xedetzat babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzorua kudeatzea duen erakunde baten bidez.

2.- d) atalean adierazitako baldintza betetzeko, konprometatutako eskuraketetarako kontratu bat egotea beharrezkoa izango da eta, desjabetzapenaren ziozko eskuraketaren kasuan, prezio zuzena finkatzea, desjabetzapen bakoiztua bada, eta baterako tasazioaren espedienteetan proiektuaren hasierako onespena.

5- artikulua- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eskuraketaren prezioaren %75eraino hel daiteke.

2.- Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoak, helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin batera emanaz gero, ezin izango du eskuraketaren guztirako zenbatekoa gainditu.

6. Artikulua- Aurkezteko agiriak eta epea.

1.- Foru Dekretu hau indarrean jarri ondorengo 45 asteguneko epearen barruan, laguntza hauen emakidan interesatutako Udalek Hirigintza Saileko agirien sarrera erregistroan hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskabidearen azalpen idazkia.
- b) Udal teknikariaren hirigintzako txostena.
- c) Kokaera planoak; 1:5.000 eskalan.
- d) Lurzatiaren planoak, eskuratzeko lurren mugak adierazten dituenak; 1:500 eskalan.
- e) Lurren balorearen eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko beren gaitasunaren ziurtagiria.
- f) Jabetza eskualdaketaren kontratuaren kopia edo desjabetzapen espedientearen kopia.
- g) Hala badagokio, eraikitzeko etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren edo beste Herri Administrazio baten etxebizitza plangintzetan sartuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- h) Hala badagokio, Udalak konprometatutako diru ekarpena.

2.- Eskabidearekin batera eskatutako agiriak aurkezten ez badira edo eraren batean osatu gabe aurkezten badira, interesatutako korporazioei eskatuko zaie gehienezko hamar eguneko epe luzaezinean antzemandako akatsak konpontzeko, egin ezik eskabideari uko egiten diotela ohartarazita.

3.- Edozelan ere, eskabideak ulertu eta baloratzeko beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eska dezake Hirigintza Sailak.

7. Artikulua- Eskabideen tramitazioa.

1.- Eskabideak Hirigintza Saileko Foru Diputatuaren Foru Aginduz ebatziko dira, Hirigintza Saileko Zuzendari Nagusiak hal proposatuta eta aurretiaz Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzuaren txostena dela.

2.- Azaldutako eskabideak ebazteko gehienezko epea deialdi hau argitaratu denetik ondorengo hiru hilabetera izango da. Hala ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.2 artikuluan ezarritakoaren arabera luzatu ahal izango da epea.

Behin hasierako epea eta, hala badagokio, luzapenarena igarota, beren-beregiko ebazpenik ez bada, eskabideak atzera emantzat hartutko dira.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 3ko 26/1998ko FORU DEKRETUA, 1998an lurzoru
eskuratzeko Udalentzako dirulaguntzak araupetzen dituena.

3.- Interesatutako Udalek edo Hirigintza Foru Sailak hala eskaturik, laguntzen emakida administrazio agiri bidez azal daiteke, alderdi biek hartzen duten elkarrekiko konpromezua agertarazteko.

8. Artikulua- Emakida araubidea.

Dirulaguntzak ondoko irizpideen arabera emango dira; garrantzitsuenetik garrantzi txikiena duenera daude sailkatuta:

1. Konprometatuen gainean, dagoeneko eginda dauden lurzoru eskuraketak.
2. Zaharrenen gainean, denboran hurbilago dauden eskuraketak, egindakoak edo konprometatuak daudenak.
3. Plangintza indarreko legeriari egokitzea edo, nolana ere, berrikuspen fasea ahalik eta gehien betetzea.
4. Eusko Jaurlaritzaren edo beste Herri Administrazio baten etxebizitza publikoaren egitarauetan lurra sartuta egotea.
5. Udalak konprometatutako diru ekarpenik handiena.
6. Eskabidearen Sarrera Erregistroren data.

9. Artikulua- Dirulaguntzaren ordainketa.

- 1.- Dirulaguntzen emakida ebazteko Foru Aginduan, dagoeneko egin diren lan eta erosketen laguntzak abonatzeko proposamena ere egongo dira sartuta.
- 2.- Egiteko dauden lurzoru eskuraketetarako emandako laguntzak Udal adjudikatariei lurren jabaria eskualdatu zaiela egiaztatzen duten agiriak aurkeztutakoan abonatu dira. Agiri horiek aurkezteko mugaduta aurtengo abenduaren 15ean izango da eta ulertuko da Udal onuradunek emandako eta bidezkotu gabeko dirulaguntzaren zenbatekoari uko egiten diotela adierazitako dataren egun horretan.

10. Artikulua- Arautegi Orokorra.

Dekretu honetan bertan ezarritakoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren dirulaguntza eta laguntza publikoen arautegi araupetzailerokorrak eraenduko dituzte Dekretu honek ezarritako dirulaguntzak.

XEDAPEN ERANTSIK

Lehena.- Hirigintza Saileko Foru Diputatua Dekretu honetan ezarritakoa burutu eta betearazteko beharrezko diren xedapen guztiak emateko eskuetsita dago.

Bigarrena.- Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzen gehienezko muga 200.000.000,- pezetako gastua izango da; gastu hori horretarako dago onetsita aurrekontuko zuzkiduraren ondorengo epigrafeetan: 430201 egitarauan; 732.99 kontzeptu-azpikontzeptuan; 11.03 organikoan; 1998ko aurrekontu ekitaldiaren 01457 hurrenkera zenbakian.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Martxoaren 3ko 26/1998ko FORU DEKRETUA, 1998an lurzorua eskuratzeko Udalentzako dirulaguntzak araupetzen dituena.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.

HIRIGINTZAKO FORU DIPUTATUA

Josu Montalbán Goicoechea

DIPUTATU NAGUSIA

Josu Bergara Etxebarria